

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulua: ERIZAINZAKO GRADUA	Mota: Oinarrizko Zientziak
Ikasgia: Antropologia, Etika eta Lezeria	Eskolen kronograma: 1. lauhilekoa
Kodea: 27553	Hizkuntza: Euskara/Gaztelania
Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua Antropologia, Etika eta Legedia irakasgaiaren helburua da ikasleei jakintzak eta estrategiak, jarrerak eta balioak transmititzea, garapen profesional gizatiartua eta kalitatezkoa izan dezaten gizabanakoentzako, familientzako eta komunitateentzako zainketetan, kultura- eta genero-desberdintasunak kontuan hartuta eta bioetika-printzipioak eta indarreko legeria behar bezala aplikatuta.	ECTS kredituak: 6
Sartzeko eskakizunak/gomendioak Bat ere ez.	Kurtsoa: 1.Maila

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
Irakasgaiaren arduraduna Juana Argomániz Alútiz	945 218065	juani_argomaniz@ehu.eus juana.argomanizalutiz@osakidetza.eus
Euzkarazko lerroko irakasleak Idoia Moreno Olabuenaga Erika Bejarano Gómez Jorge Lasuen Gabilondo		idoia.morenoolabuenaga@osakidetza.eus ; ERIKA.BEJARANOGOMEZ@osakidetza.eus jorge.lasuengabilondo@osakidetza.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Kulturak osasunean duen eragina aztertzea, haurtzaroan eta zahartzaroan desparekotasuneko eta genero-indarkeriako egoerak prebenitzeko eta detektatzeko.
- G2. Erizaintzako zainketen gaineko erabaki arrazoituak hartzea, erizaintzaren kode etikoa, juridikoa eta deontologia oinarri izanik, praktika humanista bermatzeko.
- G3. Praktika profesionalaren egoerak aztertzea, erizainaren jardueren inplikazio eta ondorio etikoak eta legalak baloratuz, betiere pertsonen eskubideak bermatuta.

ZEHARKAKO GAITASUNA

- ZG. Kritikan eta gogoetan oinarrituta ikastea: egoerak zalantzan jartzeko eta erantzunak emateko gaitasuna, informazioari zentzua emanez prozesu sortzaile, intuitibo, logiko, analitiko eta abarren bidez, prozesua jarraitua izanik. (Snyder, 1993, Alfarok aipatuta, 2017).

IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1: Kulturak eta sozializazio-prozesuek osasunaren eta gaixotasunaren kontzeptuen eraikuntzan duten eragina identifikatzen du
- IE2: Genero-indarkeriaren ondoriozko arazo fisiko, psikiko eta sozialei erantzuteko behar diren baliabideak proposatzen ditu
- IE3: kasu kliniko bat ebazteko, behar bezala aplikatzen du deliberazio-metodoa
- IE4: Osasun-laguntzari aplikatzen zaizkion indarreko legeriaren printzipioak identifikatzen ditu

EDUKIAK

I. UNITATEA: OSASUNARI APLIKATUTAKO ANTROPOLOGIA

- 1.1 Antropologiaren eta gizarteratze-prozesuen hastapenak
- Gizarteratzea: ahal izatea eta ezin izatea
- 1.2 Hurbiltze antropologikoa osasun-/gaixotasun-prozesuetara
- Asistentzia-aniztasuna. Medikalizatzea
- 1.3 Indarkeriaren fenomenoak ikuspegi antropologikotik
- Indarkeria bizi-zikloan zehar
 - Genero-indarkeria (antzematea eta esku-hartzea)

Mintegia 1: Genero-indarkeriaren analisisa

Mintegia 2: Emakumeen genitalen mutilazioa eta emakumearen bortxaketa gerra arma gisa.

II. UNITATEA: ETIKA PROFESIONALAREN OINARRIAK

- 2.1 Etika eta moralak. Bioetikaren hastapenak
- Bioetikaren printzipioak
- 2.2 Kode deontologikoa eta zainketen etika
- 2.3 Auzi etikoak bizi-zikloan zehar
- Auzi etikoak bizitzaren hasieran: abortua eta laguntza bidezko ugalke
 - Auzi etikoak bizitzaren bukaeran: agertoki klinikoak (eutanasia, suizidio lagundua...)
- 2.4 Auzi etikoak laguntza-praktikan
- Baimen informatua
 - Sekretu profesionala
 - Asistentziaren eta lkerketaren Etikarako Batzordeak

Mintegia 1: Egoera klinikoaren analisisa

Mintegia 2: Egoera klinikoaren analisisa

III. UNITATEA: OSASUN-LAGUNTZAREN ESPARRU JURIDIKOA

- 3.1 Legeriaren oinarriko kontzeptuak
- 3.2 Osasungintzako profesionalen erantzukizuna. Alderdi juridikoak
- 3.3 Osasun-legeria orokorra eta espezifikoak
 - Osasunari buruzko Lege Orokorra
 - Pazientearen autonomiari buruzko legea
 - Haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko legea
 - Bizitzaren bukaerari buruzko legeria
- 3.4 Legeria eta laguntza emakumearen aurkako indarkeriaren aurrean.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	ESKOLA MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK	IKASGELAKO ORDU PRAKTIKOAK
1	Idoia Moreno Olabuenaga	14	4	2
2	Erika Bejarano Gómez	14	4	2
3	Jorge Lasuen Gabilondo	16	0	4
GUZTIRA		44	8	8

METODOLOGIA

Planteatutako gaitasunak garatzeko, ezagutza honako hauen bidez eskuratuko da:

- **Klase magistralak:** edukiak ulertzea sustatzen duten ikus-entzunezko material didaktikoekin batera.
- **Ikasgelako praktikak:** klase magistraletan azaldutako teoriaren alderdi praktikokoak osatzeko.
- **Mintegiak:** talde txikietako saioak, ikasleek ikasgaiaren edukiei buruzko kasuak aztertzeko eta dokumentalei eta ikasgelan aurkeztutako esperientziei buruz hausnartzeko.

LAN PRESENTZIALA (60 ORDUAK)		
Klase magistrala	Mintegia	Ikasgelako praktikak
44	8	8

LAN EZ-PRESENTZIALA (90 ORDUAK)		
Gidatutako Lana	Bakarkako lana	Talde-lana
50	30	10

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

EBALUAZIO-SISTEMA

OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

- **ANTROPOLOGIA: BANAKAKO LANA EGITEA %30**
 - Eskola magistralen %80ra joan diren ikasleek analisi- eta hausnarketa-lan bat egin ahalko dute, erlazionatutako gaitasunak lortu dituztela frogatzeko.
 - %30 honetan sartzen da kritikan eta gogoetan oinarritutako ikaskuntzari dagokion zeharkako gaitasunari esleitutako notaren %10, eta beharrezkoa da ikasgaia gainditzeko.
- **ETIKA: DELIBERAZIO-LANA TALDEAN %30**
 - Eskola magistralen %80ra joan diren ikasleek deliberazio-lan bat egin ahalko dute taldean, erlazionatutako gaitasunak lortu dituztela frogatzeko.
- **LEGEDIA: GARATU BEHARREKO IDATZIZKO PROBA %30**
 - Proba idatzia, garatu beharreko galderekin. Azterketa gainditzeko, nahitaezkoa da 10 puntutik 5 edo gehiago ateratzea.
- **NAHITAEZ PARTE HARTZEKO MINTEGIAK %10**
 - Gaikako unitate guztietan nahitaez lagundu beharreko ikasgelako mintegiak edo praktikak ezarriko dira, talde txikietan. Horietan, ikasleek edukiei buruzko kasuak aztertu ahal izango dituzte, eta dokumentalei eta ikasgelan aurkeztutako esperientziei buruz hausnartu ahal izango dute.
 - Antropologia eta etika unitateko mintegiek 0,25 puntuko balioa izango dute, 10 puntuko guztizkotik.

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1,ZG	IE1, IE2	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak Mintegiak	-Idatzizko lan indibiduala Antropologia eta osasunari buruz.	30%
G2	IE3	Klase magistralak Jarduera kooperatiboak Mintegiak	- Deliberazio-lana taldean, asistentzia sanitarioarekin lotutako egoerei buruzko arazo etikoak aztertzeko	30%
G3	IE4	klase magistralak Jarduera kooperatiboak, Mintegiak	- Azterketa galdera laburrekin edo testekin	30%
G1,G2,G3	IE1,IE2,IE3, IE4	Jarduera kooperatiboak, Mintegiak	- Parte-hartzea eta ikaskuntzarekiko konpromisoa - Kasuen analisia, dokumentalei buruzko gogoetak, GKEen esperientziak.	10%

Ikasgai honen gaitasunak gainditzeko, ebaluazio-jarduera guztiak modu independentean gainditu behar dira: 10 puntutik gutxienez 5 puntu.

Ebaluazio-jardueretan lortutako "gai" kalifikazioak indarrean dagoen ikasturtean bakarrik gordeko dira. Ikasturte honetan ikasgaia gainditzen ez dutenek hurrengo ikasturteko ebaluazio-jarduera guztiak egin beharko dituzte.

Ebaluazio jarraitua aukeratu eta Legedia unitateko azterketara aurkezten ez direnek "ez gai" kalifikazioa lortuko dute deialdi honetan, eta deialdi bat agortu egingo dute.

EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAAn argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat: Justifikatutako arrazoiak direla-eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarra eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren %100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek dira: lan-arrazoiak, genero indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak %33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Ebaluazio-sistema honetan parte hartzeko, ikasle bakoitzak ebaluazio jarraituko sistemari uko egiten diola adierazteko idazki bat aurkeztuko dio irakasgaiaren irakasle arduradunari, 2024-2025 ikasturteko irakasgaiari dagokion seihilekoaren 9. astea baino lehen.

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «Ez aurkeztua» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- Idatzizko proba: garatu beharreko galdera laburrak, antropologiako eta osasuneko edukiei buruzkoak %30
- Idatzizko proba: garatu beharreko galderak, genero-indarkeriari buruzkoak %10
- Osasun-laguntzarekin zerikusia duten arazo etikoei buruz egin beharreko galderen azterketa: %30
- Idatzizko proba: galdera laburrak eta test motakoak (legediari buruzko azterketa) %30

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	GLOBAL KALIFIKAZIOAREN%
G1, G2,G3	IE1, IE2, IE3, IE4,	Azken Proba	- Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa / kasu bat ebaztea	%100

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA

Ebaluazio jarraitua aukeratu eta ohiko deialdian ebaluazio-probaren bat gainditzen ez duten ikasleek beste aukera bat izango dute ezohiko deialdian. Ezohiko deialdira arte gordeko da 5 batekin edo nota altuagoarekin gainditu diren ebaluazio-jardueren nota, baina ez ezohiko deialditik aurrera.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * *Moreno M. Enfermería Cultural: Una mirada antropológica del cuidado. 1ª ed Ibergarceta Publicaciones. Madrid; 2018*
- * *Moreno M. Transculturalidad, género y salud. Manual de enfermería cultural. 1º ed. Elsevier. España; 2021*
- * *Guía de actuación para profesionales de la salud. Ante la violencia de género y las agresiones sexuales en Euskadi. Administración de la Comunidad autónoma del País Vasco: Osakidetza; 2019*
- * *Feito Grande L. Ética y enfermería. Madril: Comillaseko Pontifize Unibertsitatea, 2009*
- * *Cortina A, Martínez E. Ética. Madril: Akal, 2001*
- * *Cortina A. El mundo de los valores ética mínima y educación. Bogotá: El Búho, 2000.*
- * *Sánchez MA. Bioética en Ciencias de la salud. 2ª ed. Elsevier:2021*
- * *Consejo General de Enfermería. Código Deontológico de la Enfermería Española. Madrid: Consejo General de Colegios Oficiales de Diplomados en Enfermería; 1998.*

Legeria-unitateari dagokion bibliografia osasunaren arloko legeria sektoriala izango da.

Sakontzeko bibliografia

- * *Simón Lorda, Pablo. “El Consentimiento Informado”. Triacastela; 2001.*
- * *Gracia Guillén D, Judez J. Ética en la práctica clínica. Triacastela; 2004*
- * *Feito L, Gracia D, Sánchez M. Bioética: el estado de la cuestión. Madril: Triacastela; 2011.*
- * *Carme B., Lucía A. Las desigualdades de género en salud: retos para el futuro. Revista Salud Pública, 3 (82):245-249. 2008.*
- * *Borrell, C. Artazcoz, L. Las desigualdades de género en salud: retos para el futuro. Revi Esp Salud Pública 2008; 82(3):245-249.*

- * DECRETO 147/2015, de 21 de julio, por el que se aprueba la Declaración sobre Derechos y Deberes de las personas en el sistema sanitario de Euskadi. BOPV, n. 146, martes 4 de agosto de 2015. Disponible: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2015/08/1503424a.pdf>

Interneteko helbideak

- * <http://www.asociacionbioetica.com/aviso-legal>
- * Fundación de Ciencias de la salud: www.fcs.es
- * Bioética en la Red: principios de bioética y otras cuestiones. Formación, libros, enciclopedia, diccionario, autores diversos. <http://www.bioeticaweb.com>

OHARRAK

Ikasturtearen hasieran, irakasgaiarekin lotutako hainbat dokumentu jarriko dira ikasleen eskura, eGelan: aurkezpena, kronograma eta tutoretzak eskatzeko sistema.

TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin tutoretza-saioak eskatzeko mezu elektronikoko bat bidali behar zaio irakasgaiaren arduradunari (juani_argomaniz@ehu.eus). Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza-saioen xedea ez da